# 5 ERREZIL ↔ ZESTOA






## PR-Gi 143
## Errezil ↔ Zestoa

13,7 km - 5 h

0 0 m > Errezil
1 2.130 m > Ernataritz (Errezilgo azkeneko baserria / último caserío de Errezil)
2 2.900 m > Semerohaitz
3 4.210 m > Indotxikieta (GR 35aren bidegurutzea / cruce GR 35)
4 6.460 m > Erdoiztako bidegurutzea (errepidea) / Cruce de Erdoizta (carretera)
5 7.300 m > Astuimendi (errepide hasiera / inicio carretera)
6 7.740 m > Aritxoeta baserria (errepide bukaera / fin de carretera)
7 8.490 m > Santa Engrazi baserria / Caserío Santa Engrazi
8 11.100 m > Aizarna
9 13.700 m > Zestoa


















Urola bailarako PR edo ibilbide laburretatik hauxe da luzeena eta zailena, eta agian horrexegatik da bidaiariari gehien eskain diezaiokeena, jende gutxiko eta paregabeko inguruan. Paisaia aldakorrak, Urola haranaren zati handi baten gaineko ikuspegi paregabea, landa-eremuak, ermitak, basoak, historia, mitologia, geologia... Aipatu beharra dago ibilbide honen zati handi bat Aralar mendia eta kostaldea lotzen dituen GR 35 - transhumantzia bideekin bat datorrela neurri handi batean; hain zuzen ere, azken hura oso garrantzitsua izan zen garai batean, eta artzain batzuek erabili egiten dute oraindik ere artaldeak Urola bailararen behealdeko larreetatik Aralarreraino eramateko urtero. Ibilbidea bideetan barrena doa gehienbat, baina zati labur batzuk errepidean egin behar dira; hala ere, ez da auto asko ibiltzen errepide horretan. Edozein urtaro da ona irtenaldi hau egiteko, baina ez da komeni udako egun beroetan egitea, zenbait zati ez daudelako

El recorrido más largo y exigente de todos los PRs de Urola es también el que más puede ofrecer al caminante: una amplia variedad de paisajes, vistas inigualables de una gran parte del valle del Urola, enclaves rurales, ermitas, bosques, historia, mitología, geología, etc. en una zona singular aunque muy poco habitada. Hay que indicar que el trazado de esta ruta coincide en gran parte con el GR 35 Ruta de la trashumancia Aralar-Costa. Esta vía, importante en otra época, todavía es empleada por algunos pastores que desde los prados de la zona baja del Urola realizan la trashumancia anual hasta Aralar. La gran mayoría del itinerario discurre por sendas y caminos, si bien hay algunos tramos breves de carretera pero de escaso tráfico. Cualquier época del año es buena para realizar esta excursión, tan solo se recomienda evitar los días calurosos de verano porque hay amplios tramos sin sombra.

itzaletan. Errezildik abiatuz gero, parrokia-elizaren ondotik abiatu eta parean dagoen kale estu eta irregularretik gora egin behar da; bertan dago ibilbidearen hasiera adierazten duen marka. Ibilbidea Zestoan hasiz gero, berriz, Arocena hoteletik abiatu, errepidea lurpeko igarobidetik gurutzatu eta eskuinerantz jarraitu behar da, Akoarantz gora.

Gure aholkua ibilbidea Errezildik Zestoara egitea da, bi herrien arteko aldea beheranzkoa da eta. Izan ere, Errezildik abiatzen bagara, ibilbidearen lehenengo zatian, gora egin behar da etengabe hurrengo hiru kilometroetan. Baserriak eta ondo kontserbatutako baso trinkoa zeharkatu eta, Errezilgo azken baserritik (Ernataritz baserritik) 500 metrora, igoera amaitu egiten da. Bidea Urola bailararen gaineko balkoi zoragarri batera heltzen da orduan, Semerohaitz aldera. Deigarria da bidea harrizko bi hormak zedarritzen dutela; horma horiek alde bateko zein besteko zelaiak ixten dituzte eta, udako hilabeteetan, artaldeei eusten diete. Duela milaka urtez geroztik erabili izan dira mendiko larre horiek.

Gazume mendia inguratzen segitu eta Ernio mendiaren ertz batetik jarraitu behar da, itsaso alderantz. Ibilbidearen gainerako zatia laua edo beheranzkoa da oro har, eta gora egin beharreko zati gutxi daude. Ibilbidean aurrera errepidea gurutzatu (zorionez auto gutxi dabiltza bertatik) eta aurrera segitu behar da banalerroan jarraituz, gainean Santa Engraziko ermita duen irtengune arrokatsu baten oinarrira heldu arte. Merezi du desbideratu eta, minutu batzuetan, tontorrera igotzea, hurbil baitago eta ikuspegia liluragarria baita; hain zuzen ere, Aizarna dago itsasoranzko norabidean: bere nortasunari eutsi dion herrixka bat, eta gure hurrengo mugarria. Aizarnatik aurrera segitu eta Kalbariora igo behar da pixka bat eta, bertatik, Akoaraino jaisten den Erdi Aroko galtzadan behera egin. Behin Akoan, galtzada desagertu egiten da, denbora gutxian Zestoara eramango gaituen pista asfaltatu baten azpian.



Sorabil baserria - Caserío Sorabil



Ernataritz baserria - Caserío Ernataritz



Aritxueta

Si partimos desde Errezil debemos situarnos junto a la iglesia parroquial y ascender por la estrecha e irregular calle situada frente a ella, donde se encuentra la señal de inicio del recorrido. Si por el contrario iniciamos la excursión desde Zestoa nos situaremos frente al Hotel Arocena, cruzaremos la carretera por el paso subterráneo y continuaremos por la derecha tomando la vía que asciende a Akoa. Recomendamos hacer esta ruta en sentido Errezil-Zestoa para tener los desniveles a nuestro favor. Partiendo desde Errezil una primera parte del recorrido nos exigirá una subida constante de unos 3 km en la que atravesaremos zonas de caseríos y un bosque denso y bien conservado. Transcurridos unos 500 metros del caserío Ernataritz, el último de Errezil, la subida habrá concluido, y nos habremos situado en un estupendo balcón sobre el Urola, en la zona de Semerohaitz. Nos llamará la atención ver cómo el camino está acotado por dos muros de piedra que cierran sus respectivas campas para mantener los rebaños de ovejas en los meses estivales. Estos pastos de montaña han venido siendo utilizados desde hace milenios. Continuaremos rodeando el monte Gazume, y proseguiremos por un espolón del monte Ernio que avanza en dirección al mar. El resto del recorrido discurre por lo general en llano o descenso, y los tramos de subida son escasos. Avanzando en la ruta atravesaremos una carretera, de escaso tráfico, y seguiremos por el cordal poco a poco hasta situarnos en la base de un resalte rocoso que se encuentra coronado por la ermita de Santa Engrazi. Aquí, merece la pena desviarse del sendero y ascender en unos pocos minutos hasta esta próxima cumbre. Las vistas desde el lugar son magníficas, y en dirección al mar descubriremos el pequeño núcleo de Aizarna, un enclave que destaca por mantener su personalidad y que será nuestro siguiente hito en el camino. Desde Aizarna debemos continuar y ascender un poco hacia el Calvario, desde donde continuaremos por la calzada medieval que desciende hasta Akoa. Una vez allí, la calzada desaparece bajo una pista asfaltada que en breve tiempo nos conducirá a Zestoa.

## Trashumantzia
## Trashumancia



Transhumantziaren jatorria gizakiak eta etxe-abereek animalien jokabidea imitatzea da seguru asko; izan ere, animaliak urtaro bakoitzean baldintza klimatiko eta agrologiko onenak zeuden tokietara joaten ziren. Hartara, artzain-kultura esanguratsua sortu zen gure herrian duela milaka urte, estai bioklimatiko ezberdinak aprobetxatzeko.

Inguruko biztanle zaharrek kostaldeko neguko klimaren gozotasuna aprobetxatzen ikasi zuten, artaldeak bertan izateko hilabete hotzetan eta, neguaren ostean, udaberri erdialdean, goi lurretako larreetara eramaten zituzten; hain zuzen ere, mendiko larreok suaren bitartez sortzen ziren, eta hutsik egoten ziren hilabeteetan. Ohartu ziren jokabide hori oso onuragarria zela artaldeak hazteko eta, hartara, ardien eta artzaintzaren inguruko kultura sortzeaz gain, mendeetan erabili ziren bideen sarea eratu zen; are gehiago, neurri txikiagoan bada ere, oraindik ere erabili egiten dira horretarako.

El origen de la trashumancia se sitúa probablemente en la imitación de comportamientos animales por parte del hombre con su ganado doméstico. Así, su secreto consistía en desplazarse allá donde hubiera condiciones climáticas y agrológicas óptimas en cada época. De esta forma hace ya varios milenios se fue creando en nuestro territorio una importante cultura pastoril que aprovechaba la existencia de diferentes pisos bioclimáticos. Los antiguos habitantes de la zona aprendieron a beneficiarse de la moderación del clima de la costa en invierno para mantener allí sus rebaños durante los meses fríos. Pasada esta temporada, a mitad de primavera, los rebaños eran conducidos hasta los pastos de montaña, creados mediante el uso del fuego y que se habían mantenido en reposo durante muchos meses. Estas prácticas se demostraron muy provechosas para la cría de los rebaños de ovejas, y de esta manera, además de toda una cultura en torno a la oveja y el pastoreo, se originó una red de caminos que fueron utilizados durante siglos, e incluso, aunque muy mermadamente, siguen empleándose hoy día para la misma finalidad.

